



## **FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN KIROL-MEDIKUNTZAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA-PLEGUA**

**(ESPEDIENTEA: 02/ 2020)**

### **1.- AURREKARIAK**

Fundación Basque Team Fundazioaren helburua da "goi Mailako Euskal Kirola" behar bezala garatzea, nazioarteko goi-mailako kirol-lehiaketan eta, batez ere, goi mailako kirol-ekitaldietan ordezkari handia izatea ahalbidetzeko, bai eta aipatutako lehiaketetan euskal kirolariek goi-mailako emaitzak lortzea ere. Gainera, Fundación Basque Team Fundazioak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie kirolariei, kirol-errendimendu hobea lortzeko eta haien osasuna babesteko.

Hori dela eta, beharrezkoa da, besteak beste, arreta mediko egokia ematea kirolarien jarduerari berez lotutako gaietan. Fundazioak ez du kirolariei kirol-medikuntzako zerbitzu egokia emateko baliabide propioirik, eta, beraz, beharrezkoa da haiek kontratatzea.

Hori dela eta, kirol-medikuntzako zerbitzuak emateko kontratu bat eskaini nahi da, baldintza-plegu honetan adierazitako moduan.

### **2.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa, lizitazio-aurrekontua kontuan hartuta, Patronatuko idazkariak eta Fundazioko koordinatzaileak osatuko dute, eta biek batera edo modu mankomunatuan jardungo dute.

### **3.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu hau pribatua da, eta jurisdikzio-ordena zibila da betearazpenean sortzen diren eztabaidez arduratzeko eskuduna.

Hala ere, kontratu hau Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) III. liburuko I. tituluak arautuko du. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dira, fundazio publiko gisa, izaera juridikoagatik eta egiten dituen kontratuengatik. Halaber, lege honen ondorioetarako, eta lege honen 3.1.e) eta 3.3.b) artikulua aplikatuz, sektore publikoko fundazio gisa, botere adjudikatzailerak da.

Baldintza-plegu honek kontratu-izaera du, eta kontratua gauzatzeko baldintza zehatzak jasotzen ditu.

### **4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Kontratu hau adjudikatzeko aukera izango dute jarduteko gaitasun osoa duten eta SPKLren 71. artikuluan 1. paragrafoan zerrendatutako kontratatzeke debekuen eraginpean ez dauden eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek. Halaber, xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute. Ondorio horietarako, SPKLren I. liburuko II. tituluko II. kapitulan jasotako arauak hartuko dira kontuan.



## **5.- KONTRATUAREN XEDEA**

Fundación Basque Team Fundazioak kirol-medikuntzako zerbitzua kontratatu behar du.

## **6.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA XEHETASUNA: KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK**

Kontratuaren adjudikaziodun den pertsona fisikoak edo juridikoak honako jarduera hauek egin beharko ditu Fundazioaren instalazioetan kirolariei zuzenduta:

- a) Balorazio funtzionalak: proba kardiologikoak, zineantropometriak, odol-analitikoak, erresistentzia-testa, indar-testa/potentzia.
- b) Lokomozio-aparatuaren balorazioak: lesio-historia eguneratua, lokomozio-aparatuaren azterketa orokorra, irudi osagarriaren bidezko diagnostikoa.
- c) Balorazio nutrizional-dietetikoa.
- d) Balorazioa proba espezifikoetan: laborategiko eta/edo landako modalitateko espezifikoak, entrenamendu-kontrolak eta lehiaketa-kontrolak.
- e) Lesioagatiko edo gaixotasunagatiko kirol-bajen ondorengo bilakaeraren jarraipena.

Jarduerak Fundazioaren lokaletan egingo dira modu iraunkorrean eta aurrez aurre, eta lanegunetan emango dute zerbitzua, gutxienez 5 orduz lanaldi bakoitzeko. Aste bakoitzean, lanaldietako bat, gutxienez, arratsaldean eman beharko da.

## **7.- GAUZATZEKO EPEA**

2 urtez emango da zerbitzua (2020 eta 2021).

## **8.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA GEHIGARRIAK**

Kontrata gauzatzen den bitartean, Fundación Basque Team Fundazioak eskubidea izango du prestazioa zuzena dela eta baldintza-plegu hauetara eta enpresa adjudikaziodunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzeko. Eskaintzak ezin izango du inoiz plegu honetan eskatutakoa murriztu edo mugatu, eta horren inguruan eskaintzen diren hobekuntza guztiak eskatu ahal izango dira.

Fundazioak baimena eman ahal izango du kontratu honetan, pleguan eta onartutako eskaintzan zehaztutako lanak garatzeko baldintzetan edozein aldaketa egiteko. Ustekabeko edozein gorabehera aipatutako fundazioak jakinarazi beharko du, eta, hala badagokio, onartu.

## **9.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA**

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua eta kontratuaren prezioa 98.000,00 € (laurogeita hamazortzi mila euro) dira, BEZik gabe, kontratuaren indarraldi osorako.

Zifra horrek gehieneko aurrekontua adierazten du, eta horrek zehaztuko du zenbateko handigoko edozein eskaintza baztertzea.

## **10.- KONTRATUAN ATZERA EGITEKO AUKERA**



Fundación Basque Team Fundazioak eskubidea du kontratuan edozein unetan atzera egiteko, hitzartutako zenbatekoa ordaindu beharrik izan gabe, eskatutako zerbitzuarekin ados ez badago, zerbitzua adjudikazioaren baldintzetan eskaintzen ez delako.

## 11.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PRODEZURA ETA ERA

Kontratu hau adjudikatzeko prozedura Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikuluan araututako prozedura ireki sinplifikatua da.

## 12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamena egiten duenak [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus) lizitazio elektronikoen ataletik aurkeztu beharko du bere eskaintza, **2020ko abenduaren 9ko 12:00ak** baino lehen, bi gutun-azal elektronikotan. Kasu honetan, ez da paperean egindako eskaintzarik onartuko.

## 13.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Eskaintzak aurkezten dituzten enpresek honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

### A.- 1. karpeta- Administrazio-proposamena eta balio-judizioaren mendeko irizpideak

Proposamenak dokumentazio hau izan beharko du:

#### 1. Jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

A. Jarduteko gaitasun osoa duela eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeke debekuen eraginpean ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dira (II. eranskina).

B. Lizitatuzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion autonomia-erkidegoko Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean. Inskripzio hori egiaztatzeke, inskripzio-eskaera aurkeztu izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da. Azken kasu horretan, adjudikazioduna izanez gero, bermea gordailutzeke errekerimendua jasotzean, emandako epean, honako hauek aurkeztu beharko ditu: eratze-eskribtura, eskaintzaren sinatzailearen notario-ahalordea, eskaintzaren sinatzailearen NANA, enpresaren edo erakundearen IFK, eta Gizarte Segurantzarekin eta enpresak helbide fiskala duen Ogasunarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

C. Lizitaziora aurkeztu nahi duten pertsona juridiko guztiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte benetako titularrak identifikatzeko (kapitalak zuritzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 3. eta 4. artikulua):

Azken buruan, zuzenean edo zeharka, pertsona juridiko baten kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago duen edo kontrolatzen duen pertsona fisikoaren edo pertsona fisikoen identifikazioa, edo, bestela, pertsona juridiko baten kudeaketa zuzenean



edo zeharka kontrolatzen duena. Salbuetsita daude EBko edo beste herrialde baliokide batzuetako merkatu arautuan kotizatzen duten sozietateak (III. eranskina).

D. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan, lizitzaileari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak agertzen ez badira: ordezkaritza-ahalordea duen pertsonak bere ahalordeen kopia aurkeztu beharko du, notariotzakoa edo administraziokoa, bere Nortasun Agiri Nazionalarekin batera, edo, hala badagokio, horren ordez egiten duen agiria.

## **2. Espainiako enpresariak**

### Nortasun juridikoa duten enpresak

Lizitzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan agertzen ez bada, pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa- eta aldaketa-eskrituren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikatzen zaion merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska badaiteke. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze-eskritura edo -agiria, aldaketa-agiria, estatutuak edo sortze-egintza aurkeztu beharko dira, jarduera arautzen duten arauak jasota, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Edo, bestela, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta.

### Atzerriko enpresariak

Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetaoak:

Kasuan kasuko prestazioa emateko gaituta daudela egiaztatzen duten Europar Batasuneko enpresak aurkeztu ahal izango dira, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 67. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora transferitzen dira.

### Europar Batasunaz kanpoko enpresak

Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetao pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela Administrazio publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetao enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

### Aldi baterako enpresa-elkartea

Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aldi baterako elkartea eratuz joaten direnean, elkarte hori osatzen duen enpresari bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta ordezkaritza egiaztatu beharko ditu, eta agiri pribatuan adierazi beharko ditu sinatzen duten enpresariaren izenak eta inguruabarrak, haietako bakoitzaren partaidetza eta kontratua indarrean dagoen bitartean



erabateko ordezkaritza izan behar duen pertsona edo erakundea (azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore publikoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen).

### Pertsona fisikoak

Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasota ez badago, lizitatuzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik:

- Identifikazio-dokumentua
- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

### **3. Kaudimena**

3.1) Ekonomikoa, urteko negozio-bolumenaren bidez egiaztatua, edo, bestela, urteko negozio-bolumenaren bidez, kontratuari dagokion eremuan, azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, enpresariaren eraketa- edo jarduera-hasieraren dataren arabera, eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera, lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbateko bera edo handiagoa dutenak, edo, halakorik ezean, ezarritakoa. Gainera, eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumenak ez du kontratuaren balio zenbatetsia behin eta erdian gaitutako, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerarekin lotutako arrisku bereziekin lotutakoak.

### 3.2) Teknikoa

Pertsona juridikoa edo fisikoa, baldintza hauekin:

- Gutxienez 10 urteko esperientzia profesionala kirol-medikuntzan.

Baldintza hori egiaztatzeko, egindako lan horien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, kirol-medikuntzako zerbitzuak eman diren erakundeak sinatuta.

- Zerbitzu lizitatu ematen duten pertsonen unibertsitate-titulazioa, medikuntzan lizentziaduna eta Medikuen Elkargo Ofizialean elkargokide izango dena.

Bi baldintza horiek egiaztatzeko, titulu ofizialak eta elkargoko kide izatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

### **4. - Balio-judizioaren mende dauden irizpideak**

Proposamenak honako agiri hauek izango ditu:

- Eskaintako lan-proposamena, honako arlo hauei dagokienez:

- a) Goi-mailako euskal kirolarien arretari lotutako hobekuntza-proiektuak, kirol-errendimendua hobetzeari lotutako alderdietan.
- b) Euskal selekzioei kirol-medikuntzarekin lotutako alderdietan arreta emateko eskaini beharreko proiektua.
- c) Goi-mailara objektiboki irits daitezkeen promesak izateagatik, kirolean aurrera egiten lagun diezaieketen euskal kirolariei eskaini beharreko zerbitzuen proiektua.
- d) Kirol egokitueta euskal kirolariei eman beharreko zerbitzuen proiektua, baldin eta kirolean aurrera egiten lagun badiezaiekete.



- Kirol-medikuntzan egindako lanak, goi-mailako kirolariek in asistentzia emateko edo zuzeneko tratamendua emateko kirol-erakundeen esparruan.

Aipatutako lanak edo estekak lizitazio honi dagokion atalean horretarako ezarritako erabilera libreko erretiluen bidez bidali edo aurkeztu beharko dira [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus) webgunean.

Honako hauek hartuko dira kontuan: kalitatea, berrikuntza, aplikazio praktikoa eta aurkeztutako proposamenen bideragarritasuna.

Aipatutako lanak edo estekak ez bidaltzea edo ez aurkeztea baztertzeko arrazoia da.

## **B.- 2. gutun-azala- Balio-judizioen mende EZ dauden irizpideak**

1.- **Eskaintza ekonomikoa**, I. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Balio anormal edo neurrigabeak dituen eskaintza kalkulatzeko, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikulua aplikatuko da, eta, era berean, eskaintza anormalki baxuen kasuetan, entzunaldia emango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dira.

2.- **Esperientzia gehigarria**

Egindako lan espezifikoaren balorazioa, honako hauek aipatuta: kirol-erakundea, egindako lana eta kirol-maila eta -errendimenduari lotutako kirol-medikuntzaren arloko exekuzio-urteak.

Proposamenen alderdi komunak:

- Proposamenak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.
- Ez dira onartuko Basque Team Fundazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak.
- Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezin izango du aldi baterako taldekatze-proposamenik izenpetu beste batzuekin, baldin eta banaka egin bada edo behin baino gehiagotan agertzen bada. Arau horiek hautsiz gero, lizitazioan ez da onartuko hark izenpetutako proposamenik.

Aurkezten diren dokumentu guztiek jatorrizkoak edo fotokopia kautotuak izan beharko dira.

Agiriak notario-agiriak badira, legeak eta Notario Erregelamenduak legitimazioaren arloan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Prozesu honetarako, Fundazioak Erregistroan zizilatuutako dokumentuak ere balidatu ahal izango dira, jatorrizkoen kopia fidel gisa.

## **5. Agirien ziurtapena eta kalifikazioa**



Kontratazio Mahaiko idazkariak karpetak jasotzen dituenean, Kontratazio Mahaia bilduko da, aldez aurretik garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Mahaiak zuzentzeko akats edo omisiorik ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan, ahoz eta idatziz jakinaraziko die interesdunei, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaie lizitatuzaileek akats edo omisio horiek zuzendu ditzaten, lizitatuzailea behin betiko baztertuta geratuko dela ohartaraziz, baldin eta emandako epean dokumentazioa zuzentzen ez badu.

Kasu horretan, akatsak zuzentzeko eskatzen zaien enpresa, pertsona edo erakunde lizitatuzaileek eskatutako dokumentazioa bidali beharko dute, Erregistroan ezinbestean aurkeztuta.

Ondoren, Kontratazio Mahaia berriro bilduko da lizitatuzaileak behin betiko onartzeari buruzko erabakia hartzeko, jasotako zuzenketak ikusita.

#### 14.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaiaren osaera honako hau izango da:

Presidentea: Josu Ayo jn., Dopinaren Aurkako Euskal Agentziako arduradun gisa, Bokalak: Eduardo Loroño dr., kudeaketa medikoko espezialista, eta Idoia Eskurza and., Eusko Jaurlaritzako CPTko teknikari gisa.

Idazkaria: Maria Pérez, Fundazioko Administrazio arduraduna.

#### 15.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA IREKITZEA

Eskaintzen proposamen teknikoaren gutun-azala Kontratazio-Mahaiak irekiko du **2020ko abenduaren 10ean, 09:30 orduetan.**

Eskaintzen proposamen ekonomikoaren gutun-azala Kontratazio-Mahaiak irekiko du jendaurreko bilkuran **2020ko abenduaren 14an, 09:30 orduetan**, honako helbide edo esteka honen bitartez: [https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo\\_basqueteam\\_es.html](https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html).

#### 16.- PROPOSAMENEN BAREMAZIOA

Honela egingo da egindako proposamenen baremazioa:

A) Balio-judizioen mende EZ dauden irizpideak:	75 puntu
A.1) Esakintza ekonomikoa Eskaintza ekonomikorik onena: gehieneko puntuazioa Eskaintza ekonomikoak baloratzeko, puntuazio handiena emango zaio eskaintzarik baxuena aurkezten duen enpresa lizitatuzaileari. Lortutako puntuak kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: Gehieneko puntuak (x) bider tarifa bakoitzaren eskaintza baxuenaren zatidura lizitatuzailearen eskaintzaren artean. Formularen emaitza negatiboa bada, 0 punturekin baloratuko da.	35 puntu



A.2) Esperientzia gehigarria: Kirol-medikuntzaren arloko lanbide-esperientzia: 8 puntu esperientzia-urte bakoitzeko, 10 urtetik 15 urtera arte, gehienez.	40 puntu
--	----------

B) Balio-judizioen mende dauden irizpideak:	25 puntu
a) Goi-mailako euskal kirolarien arretari lotutako hobekuntza-proiektuak, kirol-errendimendua hobetzeari lotutako alderdietan: 10 puntu.	
b) Euskal selekzioei kirol-medikuntzarekin lotutako alderdietan arreta emateko eskaini beharreko proiektua: 5 puntu.	
c) Goi-mailara objektiboki irits daitezkeen promesak izateagatik, kirolean aurrera egiten lagun dezaketen euskal kirolariei eskaini beharreko zerbitzuen proiektua: 5 puntu.	
d) Kirol egokituko euskal kirolariei eman beharreko zerbitzuen proiektua, baldin eta kirolean aurrera egiten lagun badezakete: 5 puntu.	

## 17.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratazio-organoak adjudikatuko du kontratua, kontratazio-mahaiak proposatuta. Kontratazio-organoak arrazoitu egin beharko du bere erabakia, mahaiaren proposamenarekin bat ez badator.

Kontratazio Organoak enpresa, pertsona edo erakunde baten eskaintza bat abantailatsuagotzat jotzeko erabakia gehienez ere 7 egun balioduneko epean jakinaraziko dio, jendaurreko bilkuran pleguak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, eta, hamar eguneko epean, bere nortasun juridikoari buruzko guztia egiaztatzeko eskatuko dio, baldin eta sektore publikoko kontratisten erregistroan inskribatuta ez badago eta Ogasunarekiko nahiz Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean badago, eta, nolana ere, behin betiko bermea jarri izana egiaztatzea, adjudikazio-zenbatekoaren EHUNEKO BOSTEKOA (% 5) (BEZ kanpo), legez aurreikusitako edozein modutan (abala, gordailua Fundazioaren kontuan...).

Dokumentazio hori jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua adjudikatzeko hartutako erabakia jakinaraziko da, eta gainerako lizitatzaillei ere jakinaraziko zaie, idatziz, posta ziurtatu edo posta elektronikoki bidez.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, eta hainbat adjudikazio-irizpide erabilita, baldintza-pleguetan parametro objektiboak ezarri behar dira, eskaintza bat anormaltzat jotzen den kasuak identifikatzeko, eskaintza osoari dagokionez. Bada, kontratazio honen xedearen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, aurkeztu diren eskaintza guztien batez besteko aritmetikoaren % 20tik beherakoak joko dira eskaintza edo eskaintza anormalki baxutzat, eta handiena ez da kontuan hartuko.

## 18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzeko agiria 7 egun balioduneko epean emango da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.





Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ezin bada adierazitako epean formalizatu, Fundación Basque Team Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, interesdunari entzuteko nahitaezko izapidea egin ondoren.

Kontratuak izaera pribatua izango du, eta jurisdikzio zibila eskuduna izango da hura interpretatzean edo aplikatzean sortzen diren eztabaidez arduratzeko.

## **19.- KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratazio-organoak Fundazioaren koordinatzailea izendatzen du kontratuaren arduradun, eta haren ardura izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, koordinatzaileek ematen dizkioten eskumenen esparruan.

## **20.- ARAUAK**

Sinatzen den kontratua pribatua izango da, eta honako hauek araututa egongo da:

- Plegu honetan dauden klausulak.
- Euskadiko Fundazioen Legeak ezarritakoa.
- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira.

Kontratua, kontratuari erantsitako dokumentuak edo Fundación Basque Team Fundazioak emandako era guztietako agiriak edo arauak ezagutzen ez badira, eta itundutakoa betetzeko aplikatu ahal badira, enpresaburua ez da betebeharrak horretatik salbuetsiko.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.2 artikulua ezarritakoaren arabera (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira), jurisdikzio zibila izango da kontratu pribatuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna. Jurisdikzio-ordena horrek eskumena izango du, halaber, kontratu pribatuen prestakuntzari eta adjudikazioari eragiten dieten auzigaiez arduratzeko.

## **21.- ORDAINKETA-ARAUAK**

Adjudikaziodun izango den eskaintzaren ondoriozko prezioa honela ordainduko da: hileroko ordainduko da, hilabetea amaitutakoan, hamabi ordainketa zatikatu eta berdinen bidez urtean, lizitatutako zerbitzua eman ondoren.

## **22.- AZPIKONTRATAZIOA**

Enpresa adjudikaziodunak zuzenean gauzatu beharko ditu kontratu honen xede diren jarduerak. Salbuespen gisa, Fundación Basque Team Fundazioak baimena eman ahal izango du adjudikazioduna ez den beste enpresa batek kontratuaren xedeari lotutako langileak edo zereginak azpikontratatzeko, SPKLren 215. eta 216. artikuluetan aurreikusitako moduan. Onarpenak esanbidezkoa izan beharko du. Ezinbesteko baldintza izango da enpresa azpikontratatik egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaintzeko betebeharrak.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da Fundación Basque Team Fundazioaren aurrean azpikontratutako enpresak arlo guztietan egiten duen jarduketaz, honako hauek barne:



zerbitzuaren kalitatea, entrega-epea, amaiera, datuen tratamenduari eta informazioari buruzko betebeharrak, eta azpikontratutako enpresak bere gizarte- eta zerga-betebeharrak betetzen dituela.

### **23.- EGINDAKO LANEN JABETZA**

Edozein ataletan egiten diren lanak Fundación Basque Team Fundazioaren jabetzakoak izango dira.

Adjudikaziodunak ezingo du beretzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanen bat, ezta horien edukia osorik edo zati batean argitaratu ere, Fundación Basque Team Fundazioaren idatzizko baimenik gabe. Nolanahi ere, adjudikazioduna izango da betebeharrak ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

### **24.- KLAUSULA BEREZIAK**

Kontratua gauzatzeko baldintza berezia da enpresa adjudikaziodunak ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzea, zerbitzua emateko erabiltzen dituen ekipoei eta kontsumigarriei dagokienez. Hori egiaztatzeko, enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren ekipoek eta baliabideek ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzen edo errespetatzen dituztela adierazteko.

### **25.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**

SPKLren 319. artikularen arabera, herri-administrazioen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerik egindako kontratuen ondorioek eta azkentzeek zuzenbide pribatuko arauak bete beharko dituzte; nolanahi ere, SPKLren 211. eta 313. artikuluetan kontratua suntsiarazteko ezarritako arrazoiak ere bete beharko dira.

### **26.- LANEN HASIERA**

Lanak hasteko data ofiziala kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango da.



## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOA

.....jaunak / andreak, adinez nagusia, .....-n bizi dena, eta NAN zk. ...., bere izenean edo .....-enpresa ordezkatzuz, egoitza soziala....., eta IFZ ..... honako lehiaketa honetan parte hartzeko:

"FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN KIROL-MEDIKUNTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO"

Fundación Basque Team Fundazioak deitua, honako hau adierazten du:

Lehiatzen den prestazioa betearazteko konpromisoa hartzen du, precio honetan:

Zerga oinarria .....€  
Guztira .....€ (prezioa guztira urte bietarako)

.....-n, .....-aren .....-(e)ko .....-(e)(a)n

Sin.:



## II. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jn. / and., NAN. ...., ..... ordezkatzuz, IFK ....., egoitza soziala .....-n, ..... den aldetik, Fundación Basque Team Fundazioak deitutako adjudikazio-prozeduran interesatua.

Honen bidez, ERANTZUKIZUNEZ DEKLARATZEN DUT, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140.1 c) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora transferitzen dituen):

- Nire ordezkariak ez du sektore publikoarekin kontratatzeke debeku-kausarik, SPKLren 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Egunean ditut indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Nolanahi ere, kontratua formalizatu baino lehen, betekizun hori egiaztatzen duen justifikazioa aurkezteko konpromisoa hartuko dut, kontratazioa arautzen duen baldintza orokorren agirian aurreikusitakoarekin bat etorritz, baldin eta adjudikaziodun banaiz.
- Adjudikazioduna izanez gero, zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren ekipoei eta bitartekoei buruzko ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak beteko ditut.

.....-n, .....-aren .....-(e)ko .....-(e)(a)n

Sin.:



### III. ERANSKINA

#### Pertsona juridikoen erantzukizunpeko adierazpena

(.....), IFZ (.....), (.....)ko (ahalordedun, zuzendari nagusi, administratzaile bakarra...) den aldetik, IFZ (.....), eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (.....), zk. (.....), (PK), (Herria.....), kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa betetzeko

Honako ZIURTATZEN DU

1 - 10/2010 Legearen Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritako identifikazio formalerako betebeharrak betetzeko aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta emandako informazio guztia indarrean dagoela:

BAI EZ

2 - Ordezkatzen duen sozietatearen jabetza- edo kontrol-egitura honako hau da:

Ez dago % 25etik gorako partaidetza duen bazkiderik / akziodunik.
Hona hemen % 25etik gorako partaidetza duten bazkideen/akziodunen zerrenda:

BAZKIDEAREN EDO AKZIODUNAREN IZEN OSOA	P F / P J	IDENTIFIKAZI OA	NAZIONALIT ATEA	PARTAIETZ A (%)

PF: pertsona fisikoa / PJ: pertsona juridikoa

3. – Azken finean, ordezkatzeko duen pertsona juridikoaren kapitalaren edo boto-eskubideen % 25etik gorako ehunekoa zuzenean edo zeharka duten edo kontrolatzen duten pertsona fisikoak, edo estatutu-akordio edo -xedapenen bidez edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketaren zuzeneko edo zeharkako kontrola gauzatzen dutenak, honako hauek dira:

Ez dago azken buruan ordezkatzeko duen merkataritza-enpresaren kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago duen edo kontrolatzen duen pertsona fisikorik, ez eta merkataritza-sozietate horren kudeaketaren kontrola, zuzeneko zein zeharkakoa, egiten duenik ere.
---



Honako hauek:

BENETAKO TITULARRAREN IZEN OSOA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITAT EA	KONTRO LA (%)

4.- Administratzaile, Patronatuko kide (fundazioetarako) edo Zuzendaritza Batzordeko kide (elkarteetarako) gisa jarduten dutenak:

ADMINISTRATAZAILEAREN IZENA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITAT EA

Arestian aipatutako administratzaile, ugazaba edo zuzendaritza-batzordeko kideren bat pertsona juridikoa bada, adierazi pertsona juridikoa den administratzaileak izendatutako pertsona fisikoaren izena:

SOZIJETATE A	ADMINISTRATZAIL EAREN IZENA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATE A

Eta jasota gera dadin, eta eskatutako ondorioetarako, honako hau ematen da.

.....-n, .....-aren .....-(e)ko .....-(e)(a)n